XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3755

162/2011 DEKRETUA, uztailaren 19koa, irakaskuntza-arloan (unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako atzerriko titulu eta ikasketak homologatu eta baliozkotzea) Estatutik zerbitzu eta eskumen berriak jaso direla-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2011ko aurrekontuan kredituak sartzeko dena.

Maiatzaren 24ko 1/2001 Legegintzako Dekretuaren bitartez, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen da, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatuko zaien aurrekontu-erregimena arautzen da. Bada, dekretu horren 75. artikuluan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak Estatutik zerbitzu eta eskumen barriak jasoz gero, zirkunstantzia horren ondoriozko obligazioei aurre egiteko, Aurrekontu Orokorretan beharrezko kredituak sartuko dira eta bai likidatzea aurreikusten diren eskubide ekonomikoak ere. Guztiarekin ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Transferentzien Bitariko Batzordearen Akordioa azkenekoz argitaratu zenetik harako hogei egun baliodun igaro baino lehen, Jaurlaritzak onartu egin beharko du eskumen edota zerbitzu berriari dagokion aurrekontua, ekitaldia amaitu arteko aldiari dagokiona onartu ere.

2011ko ekainaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofizialean ekainaren 24ko 893/2011 Errege Dekretua argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoari irakaskuntzaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzekoa (unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako atzerriko titulu eta ikasketak homologatu eta baliozkotzea). Eta 2011ko ekainaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, berriz, ekainaren 28ko 135/2011 Dekretua argitaratu zen, Transferentzien Bitariko Batzordeak -aipatu arloari dagokionez- 2011ko ekainaren 22an hartutako Akordioa onartzeari buruzkoa.

Hortaz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta, 2011ko uztailaren 19ko bileran, Jaurlaritzaren Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ostean, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren 2011ko Aurrekontuan kredituak sartzea.

1.– 25.097,95 euroko gastu-egoera onartzen da, eta honako obligazioari aurre egiteko beharrezko zenbatekoaz osatzen da: irakaskuntzaren arloan (unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako atzerriko titulu eta ikasketak homologatu eta baliozkotzea) Estatuaren zerbitzu eta eskumenak jasotzearen ondoriozko obligazioak, hain justu ere.

2.– Jasotako eskumen berriari dagokion sarrera-egoera 25.097,95 eurokoa da.

3.– Sarrera- eta gastu-egoerak, aurreko paragrafoetan aipatuak, aldi honi dagozkio: 2011ko uztailaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra artekoa; eta hara hemen nola banatzen diren:

Gastuak: 4211 Programa «Egitura eta Laguntza».

1. kapitulua	Pertsonaleko gastuak	25.097,95 euro
	GUZTIZKOA	25.097,95 euro

Sarrerak: 4211 Programa «Egitura eta Laguntza».

3. kapitulua	Tasak, prezio publikoak eta zuzenbide publikoko beste sarrera batzuk	25.097,95 euro
	GUZTIZKOA	25.097,95 euro

2. artikulua.– Sartzetik datozen ondorioak.

1.– Ekonomia eta Ogasun Sailak integratu egingo du aurreko artikuluan aipatu gastu- eta sarrera-egoera Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011ko Aurrekontuan, betiere bidezko ondorio juridikoetarako, eta bereziki, kontabilitatea, exekuzioa eta geroztiko likidazioa egoki gauza daitezen.

3. artikulua.– Legebiltzarrari jakinaraztea.

Dekretu honen babespean egindako kreditu-kontsignazioari dagokionez, Jaurlaritzaren izenean, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakitun jarriko du Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuetako Batzordea.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek; baina 2011ko uztailaren 1etik harako ondorioak izango ditu, izan ere, transferentziak egun horretan gauzatu ziren.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 19an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.